# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos


LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA
ETA AUTONOMIA-GARAPEN SAILA

Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapen Sailburuaren 1988.eko maiatzaren 10eko AGINDUA, Epailaritza, Fiskal Karreran eta Indazkari Epaileen Sailean sartzeko oposaketak gertatzeko emandako laguntza, amaitutzat jotzen dela argitara emanez. 2850

GARRAIO ETA
HERRILAN-SAILA

Garraio eta Herrilan-Sailaren 1988.eko Maiatzaren 9ko AGINDUA, Donostia-Hendaia bideko Loiolako geltokian eta 1. Mendizuloan bide bikoitzerako egitasmoa idazteko eta lanak egiteratzeko zehaztapidetza presaka bideratu beharrekotzat aldarrikatuz. 2850

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA,
JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO

ORDEN de 10 de mayo de 1988, del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico, por la que se hace pública la finalización de una ayuda económica concedida para la preparación de oposiciones de ingreso a la Carrera Judicial, Fiscal y al Cuerpo de Secretarios Judiciales. 2850

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PUBLICAS.

ORDEN del Departamento de Transportes y Obras Públicas de 9 de Mayo de 1988, por la que se declara la tramitación urgente del expediente para la redacción del proyecto y ejecución de las obras de «Doble vía en la estación de Loyola y Túnel nº 1 de la línea San Sebastián-Hendaya». 2850


# Iragarpenak
# Anuncios


GARRAIO ETA
HERRILAN SAILA

ERABAKIA, Garraio eta Herrilan Sailaren 1988.eko Maiatzaren 5ekoa, «Errepideetako tunelen diseinua Euskal Herriari egokitzea» egitean datzan teknikazko laguntzarako Lehiaketaren deia egitea onartzen duena. (Hutsen zuzenketa). 2851

ERABAKIA, Garraio eta Herrilan Sailaren 1988.eko Maiatzaren 9koa, delako «Doble vía en la estación de Loyola y Túnel nº 1 de la línea San Sebastián-Hendaya»-ren proiektua idaztea eta obrak burutzearen Lehiaketarako deia onartzen duena. 2852

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES
Y OBRAS PUBLICAS

RESOLUCION de 5 de Mayo de 1988, del Departamento de Transportes y Obras Públicas, por la que se acuerda convocar Concurso para la Asistencia Técnica consistente en la realización de la «Adaptación al País Vasco en el diseño de túneles de carreteras». (Corrección de errores). 2851

RESOLUCION de 9 de Mayo de 1988, del Departamento de Transportes y Obras Públicas, por la que se acuerda convocar CONCURSO para la redacción del proyecto y ejecución de las obras de «Doble vía en la estación de Loyola y Túnel nº 1 de la línea San Sebastián-Hendaya». 2852


# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**NEKAZARITZA ETA ARRANTZU-SAILA**

**1034**

Apirilaren 12ko 122/88 DEKRETOA, maskulu-biltzaileen erroldean sartzeko eskakizunak araupetuz.

Gaur egun, arrantzu-ustiaketari buruzko araupetze-politika osoa, mainuen egoerari eta ustiatze-gaitasunari gaurko mugen barruan eutsi eta, beharrezko izanez gero, gutxitu beharrari buruz ari da, arte bereizgarrien erabilera suztatuz, eguneroko lan-orduak mugatuz, geben-aldiak ezarriz, harrapa daitezkeen itsaskien neu-

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA**

**1034**

DECRETO 122/88, de 12 de abril, por el que se regulan las condiciones de inscripción en el censo de mariscadores.

Actualmente, toda la política de regulación de la actividad pesquera extractiva gira en torno a la situación de los caladeros y a la necesidad de mantener en los límites actuales la capacidad extractiva y llevar a cabo su reducción en los casos en que sea necesario, fomentando el uso de artes selectivas, limitando el

rriak araupetuz, eta, aipagarriena, mainuetatik harrapatze-neurriak arrantzu-moetaren arauera finkatuz, errolde itxien bitartez, baliabideak eta arrazoizko ustiatze-mailak elkarri egokituz, arrantzu-ahaleginaren eta mainuetako eskuarteen arteko egokitasunik zehatzena lortzeko xedez.

Arrantzu-egituren alderdi guztietan erabiliz gero neurri horien eraginkortasuna ikusita, izandako hazturak aholkatu egiten du ur-axaletango arrantzu-moetekin erabiltzen diren arau-erizpideak bezalakotsuak maskulu-bilketarekin ere erabiltzea.

Euskal Herriko Maskulu-Bilketarako arauei buruzko uztailaren 1eko 171/86 Dekretoak, III Idazpuruko 17. ataletik 20.era, maskulu-biltzaile txartelari buruzko arauak ematen ditu. Agiri honek bide ematen dio jabeari maskulu-bilketan aritzeko. Agiri hori ateratzeko bete beharreko eskakizunen arauera, maskulu-bilketan lanbidez ez baizik noizbehinka eta jolas-arrainketaren moduan ere aritzen direnek lortu dezakete, eta itsaski horien eske biziak eta merkatuan duten balioak erakarrita gehiegizko bilketa egiten dute, eskuarteen arrazoizko ustiaketa eta maskulu-moeten babesaren aurka.

Horrexegatik, helburu nagusia berezko mainuen eraentza eta biologia-eskuarteen zaingoa denez, beharrezkoa da biltzaile-errolde itxiak eratzea, ohizko maskulu-bilketa moeta bakoitzerako arrantzu-eskubide mugatuekin, horrela ohizko maskulu-biltzaileek ahalik eta etekin onena lortuko dutenaren ustean.

Azkenik, arreta berezia merezi du gizaki-janaritarako kuskubiko maskuluen bilketak, beren elikatze-modu bereziak, uretango bizi-apurrak iraziz eta gordez, agiango osasunketa-arriskua bait darama. Horregatik, araztu beharreko moeten bilketan ari direnak errolderatzea bakarrik egingo da dagozkion teknika-osasunketazko arauak betetzea bermatzen baldin bada.

Esandako guztiaren ondorioz, Nekazaritza eta Arrantzu-Sailburuaren saloz, Jaurlaritza-Batzarrak 1988.eko Apirilaren 12ko bilkuran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*1. Atala.–* Euskal Herrian, maskulu-bilketaren moetako arrantzuan aritzeko ezinbesteko baldintza izango da Nekazaritza eta Arrantzu-Sailean sortarazten den Maskulu-Biltzaileen Erroldean sartuta egotea.

Maskulu-Biltzaileen Erroldeak bi liburu ditu, bat ohizko maskulu-bilketaren moeta bakoitzerako, hots, ur-gainezkoa eta oinezkoa.

Lehenengo liburua errolde itxia izango da eta bertan maskulu-bilketan aritzeko eskubidea duten ontziak errolderatuko dira.

horario de la actividad diaria, fijando vedas, reglamentando las tallas mínimas de las especies susceptibles de captura, y lo que es más reseñable, estableciendo la contingentación de los caladeros por modalidades de pesca, mediante la confección de censos cerrados con el fin de adecuar los recursos a un nivel razonable de explotación, a través de la más exacta correlación entre el esfuerzo de pesca y las disponibilidades de los caladeros.

Comprobada la eficacia de tales medidas al ser aplicadas en todos los órdenes de la realidad estructural pesquera, la experiencia aconseja que el ejercicio de la actividad marisquera se rija por criterios análogos, a aquellos por los que actualmente se regulan las diversas modalidades de la pesca de bajura.

El Decreto 171/86, de 1 de julio sobre Ordenación del Marisqueo en el País Vasco establece en los artículos 17 a 20 de su Título III las normas reguladoras del carnet de mariscador como documento cuya posesión faculta a su titular a dedicarse a las actividades propias de la explotación marisquera, y cuya obtención está condicionada al cumplimiento de requisitos que parecen posibilitar el acceso al marisqueo de personas para quienes la extracción de mariscos es una ocupación ocasional, no profesional, e incluso propia de la pesca deportiva, y que atraidas por la fuerte demanda del producto y su elevado valor comercial, proceden a la captura en modo excesivo y de todo punto contrario al aprovechamiento ordenado de los recursos y la preservación de las especies marisqueras.

Por ello, teniendo como principal objetivo la gestión adecuada de los bancos naturales y el respeto al recurso biológico se impone el establecimiento de censos cerrados con derechos de pesca limitados para cada una de las modalidades de marisqueo tradicionales, en el ánimo de que así será posible lograr la optimización permanente de la rentabilidad de los mariscadores habituales.

Finalmente, ha merecido especial atención la recogida de moluscos bivalvos destinados a consumo humano, toda vez que su peculiar sistema de alimentación, mediante filtración y retención de partículas orgánicas suspendidas en el agua, lleva consigo un potencial riesgo sanitario. Por ello, la inscripción en el censo de mariscadores de quienes se dediquen a la captura de especies que requieren depuración, sólo se llevará a efecto cuando se garantice el cumplimiento de las normas tecnico-sanitarias correspondientes.

Por todo lo expuesto, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación del Consejo de Gobierno de día 12 de abril de 1988.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Para el ejercicio de la actividad pesquera en la modalidad de marisqueo en el País Vasco será requisisto indispensable la inscripción den el Censo Marisquero que se crea en el Departamento de Agricultura y Pesca.

El Censo Marisquero se compone de dos libros, uno para cada una de las modalidades tradicionales de marisqueo a flote y marisqueo a pie.

En el libro primero, que tiene el carácter de censo cerrado, se inscribirán las embarcaciones a las que se reconoce el derecho a faenar en la modalidad de marisqueo.

Bigarrenean, norbanako nahiz lege-nortasundun, berezko mainuetan agitz maskulu-bilketa egin eta ihardun honetako bilketatik irabaziak atera ditzaten lanbidedunak sartuko dira.

*2. Atala.*– 1. Maskulu-bilketarako ontzi-Erroldean egoteko eskubidea hirugarren zerrendakoak izan eta ondorengo baldintzak bete ditzaten arrantzu-ontzien jabeei aitortzen zaie:

1.a. Dekreto hau indarrean sartzerakoan, abaialeku ofiziala Euskal Herriko itsas-aldeko portuetan kokatuta izatea.

1.b. Dekreto hau argitaratu baino lehen eta mainuetatik harrapatze-neurriei buruzko 1981.eko Urriaren 15eko Agindua indarrean sartu zenetik sei hilabetetik behera gabeko aldi baterako, Maskulu-bilketarako erabili izana, hori agiri bidez edo dagokion agintariaren egiaztapen bidez egiaztatu behar dela.

1.c. Ontzia, aurrerantzean, maskulu-bilketarako ohiz erabiliko denaren hitza ematea, harrapatutakoaren edo salmenten berri emanez Arrantzale-Kofradiei, edo, hartutakoa Arrantzu-ekoizleen Erakundeari eskuratuz, orohar, ur-axaletango arrantzuari buruzko arauak betez.

2. Errolderatze-eskabidea ontzi bakoitzaren abialeku-portuari dagokion lur-mugarteko Arrantzale-Kofradietan aurkeztuko da. Erakunde huek erizpena emango dute bakoitzean eta eskabidea eta honi datxezkion agiri guztiak Nekazaritza eta Arrantzu-Sailari bidaliko, Dekreto hau argitaratu eta 30 egunetik gora gabeko epearen barruan.

Nekazaritza eta Arrantzu-Sailak, manu hau indarrean sartu eta bi hilabeteko epearen barruan, maskulu-bilketan aritzeko eskubidea aitortzen zaien ontzien behin-betiko erroldea argitaratuko dute.

3. Errolde ofizialetik kendu daitezen ontzien maskulu-bilketan aritzeko eskubidea ezin eskuratuko da beste ezein ontziri, ontzia hondatu, hautsi edo atzerri-saltzea gertatzekotan salbu, horrelakoetan erroldetik kendu bait daitezke moeta bereko ontzi berri bat egiteko.

4. Jarraiango 120 lanegunetik gorako aldian ihardunean egon gabeko ontziak erroldetik kendu egingo dira besterik gabe, etenaldiak besterik ezinean edo lege-eragozpengatik baldin badira salbu. Abialeku-portuari dagokion Arrantzale-Kofradiak edo partaide deneko Arrantzu-Ekoizleen Erakundeak emandako egiaztapen bidez zurituko da ihardunean egotea.

*3. Atala.* –1. Oinezko maskulu-biltzaileen errolde-liburuan sartuta egoteko beharrezko dira honako hauek:

1.a Arduralaritza-egoitza izatea Euskal Herriko udaletakoren batetan.

1.b. 16 urtetik gora izatea.

1.c. Lanbide horretarako beharrezko ezagutzak egiaztatzea, batez ere arte, gebenaldi eta gutxienezko neurriei buruzkoak.

1.d.-Maskulu-bilketan ohiz eta lanbidez aritzea eta harrapatutakoaren salmentatik irabaziak ateratzea.

En el libro segundo, serán inscritas las personas físicas o jurídicas, profesionales que se dediquen de modo habitual a la recogida de mariscos en los bancos naturales y que obtengan ingresos del producto de las capturas que realicen en esta actividad.

*Artículo 2.*– 1. El derecho a figurar en el Censo de embarcaciones marisqueras queda reconocido a los armadores de pesqueros de la lista tercera que reúnan los siguientes requisitos:

1.a. Tener base oficialmente establecida en puertos del litoral del País Vasco, en la fecha de entrada en vigor de este Decreto.

1.b. Haber sido despachadas para el ejercicio de la actividad marisquera con anterioridad a la publicación de este Decreto y desde la entrada en vigor de la Orden de 15 de Octubre de 1.981 sobre contingentación de caladeros, por un periódo no inferior a seis meses, lo cual deberá acreditarse documentalmente o mediante certificaciones de la autoridad competente.

1.c. Aportar compromiso de que en lo sucesivo, la embarcación se dedicará al marisqueo de forma habitual, dando cuenta del producto de sus capturas o de sus ventas a la Cofradia de Pescadores, o, de que hará entrega de las mismas a la Organización de productores Pesqueros correspondiente, respetando en general las disposiciones que regulan la pesca de bajura.

2. La solicitud de inscripción será presentada en las Cofradias de Pescadores de la demarcación territorial correspondiente al puerto de base de cada embarcación. Estas entidades emitirán para cada caso un informe y dirigirán la petición y la documentación que la acompañe al Departamento de Agricultura y Pesca en un plazo no superior a 30 días a partir de la publicación del presente Decreto.

El Departamento de Agricultura y Pesca publicará en el plazo máximo de dos meses contados desde la fecha de entrada en vigor de la presente disposición, el censo definitivo de las embarcaciones a las que se reconoce el derecho a dedicarse a faenas de marisqueo.

3. El derecho a ejercer la pesca en la modalidad de marisqueo de aquellas embarcaciones que causen baja en el censo oficial no podrán ser trasferidos a ninguna otra embarcación, salvo en los casos de hundimiento, desguace o exportación en que se podrán aplicar como baja para una nueva construcción de la misma modalidad.

4. Causarán automaticamente baja en el censo las embarcaciones que no ejerzan la actividad por un período mínimo de 120 días habiles continuados, salvo que las interrupciones sean debidas a razones de fuerza mayor o a impedimento legal. La actividad se acreditará mediante certificación expedida por la Cofradia de Pescadores correspondiente al puerto base o por la Organización de Productores Pesqueros a la que esté adherido.

*Artículo 3.*– 1. Para ser inscrito en el libro de censo de mariscadores a pie, se requiere:

1.a. Tener vecindad administrativa en alguno de los municipios del País Vasco.

1.b. Ser mayor de 16 años.

1.c. Acreditar conocimientos necesarios para el ejercicio de la actividad especialmente en materia de artes, épocas de veda y tallas mínimas.

1.d. Ejercer el marisqueo como actividad habitual, de forma profesional y percibir ingresos del producto de las capturas.

1.e. Itsas-alorreko Gizarte-Segurantzaren bere kabuzko edo lansaripeko bazkide izatea.

1.f. Itsaskien eta bereziki gizaki-janaritarako araztu beharreko kuskubiko maskuluen osasunerako teknika-osasunketazko arauak betetzea bermatzeko baliabideak dituela egiaztatzea.

*4. Atala.* –1. Oinezko maskulu-biltzaileen erroldean sartzeko eskabidea eske-egilearen egoitzari dagokion lur-mugarteko Arrantzale-Kofradietan aurkeztuko da, honako agiri hauek daramatzala:

– Eske-egilearen E.N.T.-ren argazki-aldakia

– Nortasun-txartelerakoak bezalako 2 argazki.

– Arduralaritza-egoitzaren egiaztagiria.

– Idazki bat, harrapatu nahi dituen moeta zehaztuz eta lanbide horretarako beharrezko ezagutzak, batez ere arte, gebenaldi eta gutxienezko neurriei buruzkoak dituela egiaztatuz.

– Doakiona, maskulu-bilketan ohiz eta lanbidez arituko denaren hitza ematea, harrapatutakoaren edo salmenten berri emanez Arrantzale-Kofradiari, edo, hartutakoa partaide deneko Arrantzu-Ekoizleen Erakundeari eskuratuz.

– Itsas-alorreko Gizarte-Segurantzaren bazkide-agiriaren aldakia.

– Kuskubiko maskuluen osasunerako teknika-osasunketazko arauak betetzea bermatzeko baliabideen azalpen-txostena, eske-egileak moeta hauen bilketan aritu nahi baldin badu.

4.2. Kofradiako Lehendakariak erizpena emango du eskabide bakoitzari buruz, eta aurkeztutako agiriekin batera Nekazaritza eta Arrantzu-Sailari bidaliko zaio.

Arrantzu-Artezkaritzaren teknika-zerbitzuek erizpena emango dute eskabide bakoitzari buruz, bertan, nahitaez, errolderatze-onarpenak eskuarte erabilgarrien stock-arekiko izango duen eraginaren balio-neurketa eginez.

Maskulu-biltzaileen erroldean sartzeko eskabideari ezezko erabakia ematen bazaio, zioak eta guzti azalduko dira erabakian eta honen berri emango, idatziz, doakionari eskabidea aurkeztu zueneko erakundearen bidartez. Erabaki honen aurka legezko jazarpenak egin ahal izango dira.

Errolderapenak bost urteko indarraldia izango du, eta sendesteko aski izango da doakionaren eskabidea eta dagokion Arrantzale-Kofradiaren eta Arrantzu-Artezkaritzaren Teknika-Zerbitzuen aldezko erizpena.

*5. Atala.* –Alderantzizko manurik ez badago, 500 gramutik beherako maskulu-kopuruak harrapatzeko ez da beharrezkoa izango maskulu-biltzaileen erroldean egotea egiaztatzea, beti ere amuzki edo arrainketa nagusiaren osagarri gisa erabiltzeko harrapatzen baldin badira eta gebenaldi eta gutxienezko neurriei buruzko legezko arauak betetzen.

*6. Atala.*– Dekreto honetan aipatzen direnetako dagokion erroldean sartu izan gabe egindako maskulu-bilketa Arduralaritza-hauspentzat joko da, maskulu horiek arrainketa nagusiaren osagarri gisa erabiltzeko izan, 500

1.e. Estar dado de alta como autónomo o asalariado en la Seguridad Social del Mar.

1.f. Acreditar que se dispone de los medios que garanticen el cumplimiento de las normas técnico-sanitarias de salubridad de los mariscos y en especial, de moluscos bivalvos destinados al consumo humano cuya depuración sea obligatoria.

*Artículo 4.*– 1. La solicitud de inscripción en el censo de mariscador a pie será presentada en las Cofradías de Pescadores de la demarcación territorial del domicilio del solicitante, acompañada de los siguientes documentos:

– Fotocopia del D.N.I. del solicitante.

– 2 fotografías de tamaño carnet.

– Certificado de vecindad administrativa.

– Escrito en el que el solicitante especifique las especies que pretende capturar y justifique que reúne conocimientos necesarios para el desarrollo de la actividad, especialmente en lo relativo a épocas de veda, tallas mínimas y artes empleadas.

– Compromiso de que el interesado ejercerá el marisqueo como actividad habitual, de forma profesional y o que dará cuenta del producto de sus capturas y de sus ventas a la Cofradía de Pescadores, o, de que hará entrega de las mismas en la Organización de Productores a la que pertenezca.

– Fotocopia de la cartilla de la Seguridad Social del Mar.

– Memoria explicativa de los medios que dispone para garantizar el cumplimiento de las normas técnico-sanitarias de salubridad de los moluscos bivalvos, cuando el solicitante pretenda dedicarse profesionalmente a la recogida de estas especies.

4.2. El Presidente de la Cofradía emitirá para cada solicitud un informe que junto con la documentación aportada será remitida al Departamento de Agricultura y Pesca.

Los servicios técnicos de la Dirección de Pesca emitirán un informe para cada petición, que necesariamente deberá contener la valoración de la incidencia de la autorización de inscripción en el stock de recursos disponibles.

Cuando sea resuelta negativamente la solicitud de inscripción en el censo de mariscadores, tal resolución será motivada y le será notificada por escrito al interesado a través de la entidad en que hubiese presentado la solicitud. Contra dicha Resolución podrán interponerse los recursos legalmente establecidos.

La inscripción en el censo tendrá vigencia por cinco años y para su convalidación será suficiente con la petición del interesado y el informe favorable de la Cofradia de Pescadores correspondiente y de los Servicios Técnicos de la Dirección de Pesca

*Artículo 5.*– Salvo disposición en contrario, para la captura de mariscos en cantidades inferiores a 500 gramos no será preciso acreditar la inscripción en el censo de mariscadores, siempre que sean recogidos para ser empleados como cebo o pesca auxiliar de otra principal y se respeten las normas sobre épocas de veda y tallas mínimas legalmente establecidas.

*Artículo 6.*– Constituirá infracción administrativa la extracción de mariscos sin haberse realizado la inscripción en el censo correspondiente de los regulados en este Decreto, salvo que los mariscos se vayan a emplear

gramutik behera jo, gebenaldi eta gutxienezko neurriei buruzko legezko arauak bete eta moeta bakoitzerako alderantzizko manurik ez baldin badago.

Zigorpideek uztailaren 13ko 53/82 Legeak dioena izango dute arau.

ALDIBATERAKO ERABAKIA

Dekreto hau indarrean sartu eta 3 hilabeteko gehienezko epearen barruan, orain arte emandako txartelak baliozkoak izango dira, baina bitartean doakienek beharrezko bideak egin beharko dituzte maskulu-biltzaileen erroldean sartzeko eta Nekazaritza eta Arrantzu-Sailak emandako baimen-agiriak lortzeko.

INDARGABETZEZKO ERABAKIA

Indargabetu egiten dira Euskal Herriko Maskulu-Bilketari buruzko Uztailaren 1eko 171/86 Dekretoaren 17.etik 20.erainoko atalak.

AZKEN ERABAKIETATIK LEHENENGOA

Nekazaritza eta Arrantzu-Sailak onartu egingo ditu beste Autonomia-Elkarteek bere agintepideez baliatuz emandako maskulu-bilketarako baimenak.

AZKEN ERABAKIETATIK BIGARRENA

Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamonean sartuko da indarrean eta Nekazaritza eta Arrantzu-Sailak Dekretoa egiteratzeko beharrezko izan daitezen manu guztiak emango ditu.

Gasteizen, 1988.eko Apirilak 12.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantzu-Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

como pesca auxiliar de otra principal y siempre que no supere la cantidad de 500 grs., se respeten las normas sobre épocas de veda y tallas mínimas legalmente establecidas y no exista disposición en contrario para cada especie.

El régimen sancionador se regira por lo dispuesto en la Ley 53/82, de 13 de julio.

DISPOSICION TRANSITORIA

A partir de la entrada en vigor del presente Decreto y por un plazo máximo de 3 meses, tendrán validez los carnets hasta ahora expedidos para mariscar a flote y a pié, pero durante ese periodo deberán los interesados realizar todos los trámites necesarios para su inscripción en el censo marisquero y obtener así las correspondientes acreditaciones expedidas por el Departamento de Agricultura y Pesca.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogados los artículos 17 a 20 del Decreto 171/86, de 1 de Julio, sobre Ordenación del Marisqueo en el País Vasco.

DISPOSICION FINAL PRIMERA

El Departamento de Agricultura y Pesca reconocerá los permisos para el ejercicio del marisqueo expedidos por otras Comunidades Autónomas en ejercicio de sus competencias.

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

Por el Departamento de Agricultura y Pesca se dictarán cuantas disposiciones exija el desarrollo del presente Decreto que entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de abril de 1988

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

# Agintariak eta Lanarigoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, egoerak eta gora-beherak
## Nombramientos, situaciones e incidencias

### INDUSTRIA ETA MERKATARITZA-SAILA

**1035**

Maiatzaren 10eko 123/1988 DEKRETOA, Industria eta Merkataritza-Saileko Industria-Arduralaritzaren Artezkaria izendatuz.

Jaurlaritzari buruzko Ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18garren atalak J) idazatian, 26garrenak 6. idazatian eta 29garrenak diotenaren arauera, Industria eta Merka-

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y COMERCIO

**1035**

DECRETO 123/1988, de 10 de Mayo, por el que se nombra al Director de Administración Industrial del Departamento de Industria y Comercio.

De conformidad con lo dispuesto en los Artículos 18, apartado J), 26, apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de Junio, de Gobierno, a propuesta del Consejero del